

## Bizitza osoa euskalgintzan

Juan Zelaia euskaltzalea omenduko dute Arabako ikastolek biharko jaian

AURTENGO Araba Euskarazeko ospakizuna aprobetxatuz, Juan Zelaia omenduko du Ikastolen Federazioak, euskararen alde Arabako herrialdean lan handia egin baitu.

Euskaltzaletasuna bultzatzeko asmotan Zelaiak eginiko ekimenei ezagutza publikoa eskaintzeko asmoa dute antolatzailerik omenaldiarekin.

Xabier Sancho Tena eskultoreak eginiko artelana emango diote omenduari oparizat, igande goizean Labarkako ikastolan bertan egingo den ekitaldian.

Joseba Aginagalde Arabako Ikastolen Federazioko Presidenteak Juan Zelaiak eginikoa goratu eta euskalgintzan izandako garrantzia azpimarratu du: «Duela hogeitau urte bera izan zen ikastolen alde lan egiten hasi zen lehenetarikoa. Eta ez zuen bakarrik hitzez egin, baita ekintzez ere. Dirulaguntza ugari ere eman zituen ikastolak sustatzeko».

Zelaiaren irudia definitzerakoan, Aginagaldek ez du inolako dudarik: «Euskalduna, abertzalea, euskaltzalea eta euskal kulturaren alde lan handia egin duen pertsona da». Omenaldia dela eta, une egokia dela iritzi du



Juan Zelaiak makina bat ekimen egin ditu euskararen alde. Merezitako omenaldia jasoko du.

Federazioaren presidentek, «ez baita betiko gure artean izango».

Juan Zelaiak berak esker ona azaldu du egingo zaion omenaldiarengatik. «Oso

pozgarria da, eta ez nuen espero», adierazi du Zelaiak. Eginiko lana onartzen du

euskaltzaleak, baina apaltasuna agerian uzten du: «Egia da euskara eta euskaltzaletasuna bultzatzeko ahaleginak egin ditudala. Baina ez dakit nahikoa izan den. Ez dakit euskarak aurrera egiteko egiten diren ekimen guztiak nahikoa diren».

### Lanean hasi ahal izan zenean

Lankidetzara horren hasiera ere oroitzen du Juan Zelaiak. «Euskadiren alde lanean hasi ahal izan ginenean ekin genion, duela 20 urte baino gehiago Ikastolak Araban lanean hasi zirenean». Handik aurrera lan polita egin dela uste du: «Pozten nau euskarak hartu duen bultzada ikusteak. Baina ahalegin guztiak gutxi dira euskararen alde. Neure etxean txikitatik euskara izan dugu ama hizkuntza, eta gorantza ikusteak poz handia da niretzat. Hala ere, oraindik gehiago nahiko nuke».

Orain Euskal Fundazioa zuzentzen du Juan Zelaiak. Elkarte horren helburua euskal kulturarekin zerikusia duen oro lagundu eta bultzatzea da.

## Windows 98 euskaraz salgai!


- ✓ Erabiltzaile berrientzako bertsioa, eta
- ✓ Bertsio berritza Windows-en erabiltzaileentzat

- ✓ Windows 98ren gaztelaniazko bertsioaren lizentziaduna bazara, eskatu Microsofti lehenbailehen euskarazko bertsioa. Tel.: 91 375 40 04 edo 902 197 198
- Bakarrik material eta bidalketaren gastuak ordaindu beharko dituzu, guztira 4.900 pta.

### Bestalde

- ✓ XUXEN II, Euskararen zuzentzaile ortografikoa, INTERNETen duzu, hartu eta zure ordenadorean doan kargatzeko:

**XUXEN II**  
[http://www.euskadi.net/euskara\\_hizt](http://www.euskadi.net/euskara_hizt)



**Internet Explorer 4.0 euskaraz**

1999ko uda parterako **Office 2000 (Microsoft Word, Excel eta Outlook) euskaraz**

Salmenta-guneak:

- **Ei Corte Inglés**
- **Ei Computers** (Sabino Arana, 67 Bilbao)
- **Eroski** (Leioa, Gasteiz, Arrasate, Basauri, Iruña, Donostia, Barakaldo, Tudela)
- **Alcampo** (Irun, Oiartzun)
- **Pryca** (Donostia, Goierri, Sestao, Erandio)
- **Bilintx** (Donostia)
- **Urretxindorra** (Bilbo)
- **Arriaga** (Gasteiz)
- **Xalbador** (Iruña)

